


# ARGAZKILARITZA, MINTZAIRA UNIBERTSALA



## ARGAZKILARITZA, MINTZAIRA UNIBERTSALA

DBHko 2. zikloan erabiltzeko prestatua dago.

OCDk, Plastika eta Ikus Hezkuntza ikasgaiaren sarreran, zera dio:

*Ikasleak, inguruneak eskaintzen dizkion esperientziak hautematen ditu, eta burutzen dituen ekintzen bidez, adierazten; Plastika eta Ikus Hezkuntza ikasgaiaren bitartez, komunikatzeko erabili ohi den mintzairaren norabide bikoiztasun hori areagotu nahi da.*

*Mintzaira horrek ondorengo egitura du:*

*-Ikusmenezko hautematea, ongi egituratutako katearen antzekoa da. Bertan prozesu batek bestea eragiten du, objektuaren ulermen osora iritsi arte.*

*-Hautemandakoaren barneraketa; pertsonak bere barnean duen munduari dagokio, horrek sentitzen duena eta pertsonalki bizi duena: tentsioa, ezerosotasuna, emozioak, esperientziak...*

## ARGAZKILARITZA, MINTZAIRA UNIBERTSALA

### HELBURU NAGUSIAK

Bideo serieak ikasleari, lanabes aproposak eskura jarri nahi dizkio, irudien mundua ahalik eta sakonen ezagutzeko; eta, irakasleari lagundu egin nahi dio, lanabes horien azalpenak emateko orduan.

Lanabes horiez jabetzeak ikasleari irudien munduan erabiltzen diren kode artistiko eta ez-artistikoak moldez barneratzeko abagunea eskainiko dio, baita mezuak interpretatzeko eta sortzeko ere. Era berean, kode horiek guztiak erabiltzerakoan inplikaturik dauden prozesuen gainean, gogoeta egitera bultzaturik sentituko da.

## HELBURU OROKORRAK

- 1.- Sormenari leihoa irekitzea eta komunikatzeko aukerak aberasteko, plastikaren eta ikus mintzairaren kodeak, terminologia eta prozedurak erakustea.
- 2.- Estereotipoak gaindituz, adierazpen plastikoak errespetatzen eta preziatzen eta iritzi eta irizpide pertsonalak lantzen irakastea.
- 3.- Plastika eta ikus mintzaira bizipen, sentimendu eta ideien adierazpide gisa duen garrantzia baloratuz eta inhibizioak gaindituz, norberaren oreka eta ongizaterako lagungarri dela konturatzea.
- 4.- Besteekiko harremanetan malgutasun, elkartasun, interes eta tolerantzia jarrerak azalduz, inhibizioak eta aurriritziak gaindituz eta ezaugarri pertsonal edo sozialek eragindako diskriminazioak gaitzetsiz, talde jardueretan parte hartzea.
- 5.- Obra baten burutze prozesuaren faseak indibidualki edo elkarlanean planifikatzea, lortu nahi diren helburuei egokitzea, haren osagaiak aztertzea eta, amaitzerakoan, fase bakoitza berrikustea.

## EDUKIAK

### 1. MULTZOA: Behaketa eta hautematea

#### *Kontzeptuzko edukiak*

- Gertakari artistikoa eta irudia orokorrean.
- Hautemate elementuak (hautemateari laguntzen dioten elementuak).
- Irudiaren ezaugarriak: sinboloak / abstrakzioa, anbiguotasuna / agerikotasuna.

#### *Prozedurazko edukiak*

- Adierazpen moduen behaketa eta analisisa egitea.
- Formaren eta irudiaren artean izan daitezkeen desberdintasunak atzematea.
- Pentsamendu sortzailea lagunduko duten baliabideak erabiltzea.

#### *Jarrerazko edukiak*

- Nork bere sentipenen aurrean gogoetazko jarrerak erakustea.
- Irudia hautematea sustatzeko elementu gisa baloratzea.
- Norberaren adierazpen artistikoak nahiz besteenak aztertzeke interesa izatea.

### 2. MULTZOA: Plastika eta Ikus Mintzaira

#### *Kontzeptuzko edukiak*

- Irudiaren osagarriak: forma, kolorea, ehundura, errepresentazioa.
- Konposizioa -Estiloak.
- Sormen prozesuak: motibazioa, proiektuen lanketa, ideia gauzatzea.

#### *Prozedurazko edukiak*

- Bi dimentsioko espazioan hirugarren dimentsioaren adierazpena.
- Kolorea, argia eta formak sortzeko erabiltzen dituzten konposizioen burutzapena.
- Garai guztietako obra plastikoen konposizioaren behaketa eta analisisa.

#### *Jarrerazko edukiak*

- Izaera artistikoko obretan zein naturan barne antolaketa ezagutzeko interesa.
- Lan prozesuko etapak zuzen erabiltzeko interesa eta jarrera aktiboa.
- Lankideen iritzi eta lanei buruzko begirunea eta interesa.

### 3. MULTZOA: Adierazpen eta komunikaziorako bide eta teknikak

#### *Kontzeptuzko edukiak*

- Euskarriak, materialak eta tresnak.
- Irudi finkoaren zenbait adierazpide: marrazkia, pintura, modelazioa, argazkia...

#### *Prozedurazko edukiak*

- Teknikaren aplikazioa adierazpen eta estetika aukerak menperatzeko.
- Teknikaren arabera, tresna egokiak erabiltzea beraien ezaugarriak ikertzeko.

#### *Jarrerazko edukiak*

- Materialak, lantokia eta lanabesak, ongi erabiltzea beti txukun eta prest izateko.
- Tresna, material eta euskarri berriekiko interesa eta jakin mina izatea.
- Norberaren eta besteen lanarekiko begirunea eta jarrera kritikoa izatea.

## EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1.- Ikaslea espazioan nahiz planoan formak antolatzerakoan aukeraak bilatzeko eta konposizio arazoak konpontzeko gai den ebaluatu nahi da. Lan horretan diharduela, bideoan aipatu diren kontzeptuak: interesgunea, erritmoa, pisua, tamaina, oreka eta horrelakoak kontuan hartzen dituen, eta horren guztiaren emaitza eskema, zirriborro eta maketen bidez bistaratzeko gai den ere ebaluatuko dugu.

2.-Plastika eta Ikus Mintzairako elementuak bildu eta lan faseen planifikazioa eskatzen duten artelanak egiterakoan, ikaslea bere taldean integratzen den, solidaritate jarrera erakusten duen eta besteen iritzien aurrean malgu eta araukiko begirunez jokatzeko duen ebaluatzen da. Artelana egiterakoan etapak logikaz antolatzeko duen gaitasuna ere baloratuko da.

3.- Ikasleak norberarena ez bezalakoak ez diren beste adierazpenekiko tolerantzia eta begirunezko jarrerak hartzen dituen egiaztatu nahi da. Besteen adierazpenak modu kritikoa komentatzen eta analizatzen dituen, iritsi denak onetsiz nahiz, bide batez, jarrera kritikoa eta autonomia pertsonala agerian jarrita, eta diskriminazio joerak baztertzen dituen ere ebaluatuko da.

4.- Plastika eta Ikus Mintzairaren oinarrizko elementuen bidez, ikaslea ingurunean adierazpen artistikoak analizatzeko, kultur ondarearen elementu integratzaile gisa baloratzeko eta, horiei begirunea izanez, inguruko gertakari artistikoak atzemateko gai den; era berean, errealitatea behatzeko gaitasuna duen eta bertan parte hartzen duten adierazpen eta komunikazio elementuak atzematen dituen ere egiaztatu nahi da.

## Noiz eta nola erabili

**ARGAZKILARITZA, MINTZAIRA UNIBERTSALA** osatzen duten bideoek ordena naturalean ordenaturik daude. Etekinik handiena ateratzeko ematen den ordenan lantzea proposatzen da.

-Bideoetan hiru atal nagusi aurkituko dituzu:

### **HISTORIA, KONTZEPTUAK eta LANTEGIA.**

**-HISTORIA** atalean, oso modu labur eta grafikoan, bideoan landuko den gaiari sarrera historikoa egiten zaio.

**-KONTZEPTUAK** atala, bere aldetik, ataltxotan zatitua dago. Ataltxo horietako bakoitza ikusi eta gero, bideoa gelditzea eta entzundakoaren gainean hausnarketa egitea komeni da. Kontzeptu edo ideia jakin bat berriro ikusi nahi baduzu, begiratu gida honetan bertan kapituluari dagokion orrialdean aurkituko duzun aurkibidea.

**-LANTEGIA** atalaren helburua irakasleari laguntzea da. *Proposatzen diren ekintzek bideoan jorratu den gaiarekin lotura estua daukate, izan ere ordura arte ikusitakoa praktikan jartzea da euren betekizuna. Ekintza horiek era mailakatuan aurkezten dira, errazak lehenengo eta zailtasuna areagotuz kapituluak aurrera egin ahala. Praktika horien bidez, ikasleari argazkilaritzaren ezkutukoak erakutsi nahi zaizkio.*

### **ARGAZKILARITZAREN HIZTEGI TEKNIKOA**

Gida didaktikoarekin batera ematen den hiztegian, bideoetan erabili eta argazkilaritzaren munduan aski ezagunak diren hitzen esanahiak biltzen dira.

Moldez erabiltzeko, ikasleei lehen egunetik ematea proposatzen da. Horrela, bideoa ikustean, arazo gutxiago izango dute ulertzeko.